Ultzamatik ere, posible egingo dugu!

11 urte pasatxo dira Ultzaman udal-aldaketa gertatu zela, EH Bildu alkatetzara iritsiz. Aldaketa hori ez zen alternantzia edo izen-aldaketa soil baten nahia. Nafarroan zein Ultzaman UPNren eta estatuan PPren politika atzerakoiak, zerbitzu publikoen murrizketak, pribatizazio ugariak eta euskararen aurkako neurriak atzean uzteko nahia zen. Baita gaizki kudeatutako eta interes pribatuen mesederako bakarrik bideratutako proiektuak atzean utzi eta horien arduradunak gobernu eta udaletatik kanpo uzteko nahia ere; bereziki zerbitzu publiko eta gizarte politika sendoagoak izateko aldaketa baten nahia.

Baina botere faktikoek eta botere pribatu handiek eskuinaren itzulera nahi dute, are eskuinerago gainera, eta hori bultzatzen dihardute

Itzultzea nahi duten eredu horren aurrean, Ultzaman herritarren bizitzak hobetzen dituen ezkerreko politikaren emaitzak ikusteko aukera dugu. Esate baterako: eskolan eta haureskolan egindako inbertsioak, gimnasioaren eraikuntza eta osasunarekin eta ongizatearekin lotutako zerbitzuak, berdintasunaren aldeko bide eta dinamikak, euskararen aitortza eta euskararen normalizaziorako neurriak, energia-efizientzia eta horretarako baliabideen hobekuntza, energia berriztagarrien instalazioentzako hobariak, etxebizitzara bideratzeko bi eraikin erostea, bidezidor eta mendi-pisten hobekuntza eta larreen garbiketa-lanetarako inbertsioak, turismo-, kirol- eta kultura-taldeekin elkarlana eta emandako diru-laguntzak, neguko zinema-emanaldiak finantzatzea, Abauntzeko kobako lanetara bideratutako dirua, Palestinarekiko elkartasuna eta diru-laguntzak, DANAgatik emandako diru-lagunt
0-3 espazioa, poligonoan egindako inbertsioak, Arraitzko barriantea egiteko lortutako akordioa eta abar luze bat.

pertsonen eta langileen eskubideetan eta bizi eta gizarte baldintzetan aurrera egitea

Eta hori guztia ez litzateke posible izango herritarren babesik gabe, ezta instituzio guztietan EH Bilduk izandako ordezkaritza indartsurik gabe ere. Argi dago aipatutako aurrerapen asko EH Bilduk baldintzatuta lortu direla. Hortaz, norabide horretan lorpen gehiago lortzeko ezinbestekoa da EH Bildu sendoago baten beharra: agenda ausart bat baldintzatzeko giltza baita, sakoneko politika publiko aurrerakoi eta berdinzaleak lortzeko. Finean, orain arteko ibilbideak argi erakusten duen bezala, EH Bildu indartsuak bermatzen du eskubide eta askatasunen zabalpenerako agenda ezkertiar eta eraldatzaile bat garatzea.

Beraz, EH Bilduri bozkatzeak balio bikoitza du: bloke erreakzionarioa gelditzea bermatzen du, eta baita zerbitzu publikoetan, pertsonen eta langileen eskubideetan eta bizi eta gizarte baldintzetan aurrera egitea er

Eraman dezagun Nafarroa ezkertiar, eraldatzaile, euskaldun eta subiranistaren ahotsa Madrilera.

Badatorren Nafarroa posible egingo dugu

Ricardo Echandi Serrano · Tere Leggett · Martin Picabea Aguirre · Iñaki Ariztegi Barberena · Cristina Arregi Gonzalo Arantxa Martinez Urionabarrenetxea · Ana Olaetxea Ambrosio Elizalde Urtasun · Iñaki Larrayoz Arano Jose Ramon Berasain · Joseba Ibarra Casimiro Yaiza Mendive Gascue · Mikel Beuntza Urtasun